

Nabarmentzekoak...

HAURTZAROA ETA FAMILIA

- ▶ TXALOPOTE LUDOTEKA, URRIA-EKAINA
- ▶ LUDOTXIKIA, AZAROA - MAIATZA
- ▶ FAMILI TAILERRA
- "ZORIONTASUNA ETA ONGIZATEA: SEMEALA-BEKIN ELKARBIZITZEKO ESTRATEGIA PERTSONALAK"
- ▶ EMAKUME ETA FAMILIENTZAKO LAGUNTZA JURIDIKORAKO ZERBITZUA
- ▶ DOLUARI BURUZKO TAILERRA: "DOLUARI ETA GALEREI BEGIRA"

ENPLEGU PLANA

- ▶ LAN AURREKO TAILERRA:
- ARRANDEGI, URDAITEGI, FRUTATEGI ETA HARATEGIKO SALTZAILEA ETA APAL-HORNITZAILEA

ADINEKO PERTSONAK

BESTE ZERBITZU ETA JARDUERAK

Aranguren Ibarreko Udaleko OGZen Informazio Buletina posta elektronikoz jaso nahi baduzu, msanpedro@aranguren.es helbidera mezu elektronikoa bidalitz eska dezakezu, eta adierazi izena, abizenak, telefonoa eta zein helbidetan jaso nahi duzun buletina.

Modu horretan, Buletina e-postaz jasoko duzu eta Gizarte Zerbitzuko Arloari dagokion guztiari buruzko berri izanen duzu, eta garaiz.



MUTILOA PLAZA Z/G - MUTILOA ORDUTEGIA: ASTELEHENETIK OSTIRALERA
9:00ETATIK 14:00ETARA
TEL: 948151382

Aranguren Ibarreko LUDOTEKA ETA LUDOTXIKIA

Ikasturtea hastearrekin batera, Aranguren Ibarreko Ludotekak berriz ere atea irekiko dizkie 2011 eta 2019 bitartean (biak barne) jaio eta beren denbora librean jolas eta jardueren bidez arindu nahi duten Ibarreko haur guztiak.



Aranguren Ibarreko Udal Ludoteka aisialdirako gune hezitzailea da. Bertan haurren jolas eta esperimentazio beharrak kontuan hartuz aisialdiaren arloa lantzen da, baita beste arlo batzuen estimulazioa ere: arlo afektiboa, soziala, kognitiboa, mugimendua eta adierazkortasuna ere.

Zeharka landuko dira hezkidetzak, genero-berdintasuna, kulturartekotasuna, ingurumenaren zaintza eta osasunaren sustapena bezalako kontzeptuak.

Aranguren Ibarreko Ludotekaren helburu ezberdinen artean hauek nabarmenduko ditugu:

- Haurren garapen kognitiboa, psikomotorra, afektiboa eta soziala sustatzea ingurune ludiko batean, hainbat jardueren bidez.
- Haurrari jolasaren bidez irudimena eta sormena garatzen laguntzea.
- Jolasa ez ezik, komunikazioa, talde-lana eta elkarrenganako errespetua bultzatzea.
- Zerbitzuan parte hartzen duten haurrak elkartasunezko eta berdintasunezko balioak sustatuz eta desberdintasuna errespetatuz hezteak.
- Haurrei, baita edozein ezgaitasun edo zailtasun izanda ere, haien garapenean laguntzeko material ludiko egokia ematea.
- Euskarazko taldeei dagokienez, jardueraren helburua da haurrek eskolan ikasten duten hizkuntzaren ezagutza indartzea eta ikasgelatik kanpo erabiltzeko ohitura sustatzea.

Ludoteka Mutiloako Idoi plazan dago (astelehenetik ostiralera) eta Larunbatetan Eguzki plazako Kultur Etxeko kanpoko aretoan, 17:00etatik 19:00etara

Aranguren Ibarreko LUDOTXIKIA



Halaber, Aranguren Ibarreko Ludotxiki Zerbitzuaren berri duzue jarraian (haurrentzako jolastokia da).

Ludotxikiko atea zabalik daude beren 0 eta 3 urte bitarteko haurrekin etorri nahi duten guraso guztientzat. Bertan, haien aisialdia arindu ahalko dute jolas eta jardueren bidez.

Ludotxikira haurrek adingabearen ardura hartuko duen heldu batekin joan beharko dute beti.

Ludotxikia Mutiloako Kultur Etxeko kanpoko aretoan dago (Eguzki plaza), astearte eta ostegunetan, 17:00etatik 19:00etara

TXALOPOTE LUDOTEKA

(URRIA-EKAINA)



Ikasturtea hastearekin batera, Aranguren Ibarreko Ludotekak berriz ere atek irekiko dizkie 2011 eta 2019 bitartean (biak barne) jaio eta beren denbora librean jolas eta jardueren bidez arindu nahi duten Ibarreko haur guztiei.

Adinaren arabera jarduera ezberdinak egingo ditugu:

- ▶ **4-7 urte bitarteko taldea:** Esploratzaile Txikiak.
- ▶ **8-12 urte bitarteko taldea:** Aisia eta denbora librearen Kluba.



LUDETEKA: IDOI PLAZAKO LOKALAK:

ORDUTEGIA:

Astelehena: 17:00etatik 19:00etara INGELESA.
 Asteartea: 17:00etatik 19:00etara GAZTELANIA.
 Asteazkena: 17:00etatik 19:00etara INGELESA.
 Osteguna: 17:00etatik 19:00etara. EUSKARA.
 Ostirala: 17:00etatik 19:00etara GAZTELANIA-EUSKARA (A eredu)

Hasierako data: Urriaren 7a, ostirala, 17:00etan.

Bukaera: 2023ko ekainaren 16a.

Kuotak: urteko 25 €

- 7 € hilabeteko
- 1 € egun solteak, izen-emateak plazak egonez gero.

LUDETEKA LARUNBATETAN

Kultur Etxeko kanpoko gela
 Eguzki plaza, Mutiloa.

ORDUTEGIAK:

Larunbata: 17:00etatik 19:00etara.

Hasiera: urriak 8 (larunbata).

Kuota: 10€ urteko.

Bukaera: 2023ko ekainak 17.

Oharra: Gutxienez 10 hurrek izen-ematea eskatzen da zerbitzua eskaini ahal izateko eta 20 haur gehienez.



LUDOTXIKIA

(AZAROA - MAIATZA)

Ludotxikia Aranguren Ibarrean erroldatutako haurrei zuzendutako jolaserako gunea da, 0-3 urte bitartekoentzat. Gune horretara, haurrek beti heldu batekin joan behar dute eta heldu horrek haurra bere zaintzapean izan beharko du.

Ludotxikiko lokala guztiz egokituta dago familiek eta seme-alabek denbora jolasean eroso goza dezaten, horretarako giro egokian.

Ludotxikia Mutiloako Kultur Etxeko kanpoko gelan dago (Eguzki Plazan).

Hasiera: Azaroak 3 (osteguna).

Bukaera: 2023ko maiatzak 30.

Egunak: astearte eta ostegunetan.

Ordutegia: 17:00etatik 19:00etara.

Kuota: 10€.

Ordainketa: Jarduera burutuko den gelara joan eta lehenengo egun horretan ordainduko da han bertan.

IZEN-EMATEAK

TXALOPOTE LUDOTEKA, LARUNBATETAKO LUDOTEKA ETA LUDOTXIKIA: Irailak 29 eta 30

TELEFONO HONETARA DEITUZ:
948 012 012 (doakoa tarifa finkoa dutenentzat), 8:00etatik 18:00etara.

- PLAZARIK EGONEZ GERO, JARDUERAKO LEHEN EGUNEAN IZENA EMAN AHALKO DA.
- PLAZA MUGATUAK DIRA ETA BEHAR IZANEZ GERO, ZOZKETA EGINEN DA.

FAMILI TAILERRA

"Zoriontasuna eta Ongizatea: seme-alabekin elkarbizitzeko estrategia pertsonalak"



Seme-alabak ditugun gurasook buruan izaten dugun funtsezko ideia da hazkuntza positiboa eta errespetuzko hezkuntza sustatzea, egiten duguna positiboa dela eta gure seme-alaba ongi tratatua sentiarazten duela jakitea.

Prestakuntza-proposamen hau familiei bizikidetzako egoerak maneiatzen laguntzeko sortu da, batzuetan ez baitakigu horiek nola kudeatu.

Tailer teoriko-praktikoa planteatzen dizuegu, bi alderdi lantzeko talde-dinamika batekin:

- ▶ Gure errealitate pertsonalari buruzko hausnarketa (zailtasunak, egoera pertsonal eta familiarrekiko begirada positiboa sortu eta nola zaindu gure burua egunero: Arnastu, Barre egin eta Erregulatu).
- ▶ Ongizatea proiektatuz eguneroko bizikidetzan (familia seme-alaben ongizate emozionalaren, atxikimendu seguruaren eta haurraren emozioen laguntzaren arduradun gisa).

DATAK: asteazkenak, urriak 19 eta 26.

ORDUTEGIA: 17:00etatik 19:00etara.

LEKUA: Mutiloako Irulegi Ikastetxe Publikoan.

EMAILEA: Lourdes Díez, psikoterapeuta.

IZEN EMATEA: urriaren 7ra arte, 948 012012 telefonora deituz, 8:00etatik 18:00etara.

EMAKUME ETA FAMILIENTZAKO LAGUNTZA JURIDIKORAKO ZERBITZUA



Emakume eta familientzako laguntza juridikorako zerbitzua Aranguren Ibarrean errolatuta dagoen pertsona orori zuzendutako zerbitzua da eta musu-truk eskaintzen du familiarekin zer ikusia duten gaien inguruko informazioa (banantzeak, dibortzioak, izatezko bikoteak, ezkontzaren ondasuneraentzea...), laneko gaiak (amatasun eta aitatasun baimenak, edoskitzeak, eszedentziak eta zaintzarako baimenak, kaleratzeak...), gizarte zerbitzuaren prestazioak (alarguntza-pentsioa, zurtasunekoa...), testamentuaren antolaketak, emakumeenganako indarkeriari buruzko gaiak (denuntziak, urruntze aginduak...).

ARRETA ORDUTEGIA:

Asteartero eskainiko da, 10:00etatik 12:30era, Aranguren Ibarreko Udaleko bigarren solairuan (Mutiloa plaza z/g). Informazio gehiagorako eta hitzorduak hartzeko: Oinarrizko Gizarte Zerbitzua. Telefonoa 948151382.

DOLUARI BURUZKO TAILERRA: "DOLUARI ETA GALEREI BEGIRA"



Herritar guztiei zuzendua.

Bizi-prozesuan zehar, galera emozionalekin eta doluarekin zerikusia duten hainbat egoera aurkezten dira. Beharrezkoa da horiek bizitzaren zati gisa ezagutu eta onartzea eta horiei aurre egiteko estrategia egokiak izatea. Horregatik guztiagatik, ikastaro honen bidez horiei buruzko hausnarketa sustatu nahi da.

DATAK: azaroak 8, 15 eta 22
ORDUTEGIA: 18:00etatik 20:00etara
LEKUA: Irulegi Ikastetxe Publikoa

EMAILEAK: Goizargi Elkarteko Terapeutak
IZEN EMATEAK: urriaren 28ra arte, 948 012012
telefonora deituz 8:00etatik 18:00etara.

LAN AURREKO TAILERRA

Ikastaro hau diruz lagundua da (5 €/orduko), Aranguren Ibarrean errolatuta eta langabezia dauzen eta Aranguren Ibarreko enplegu poltsan alta emanda eta indarrean dauden pertsonentzat.

Lehenetsuna emanen zaie Enplegu Planetik egindako lan aurreko tailerretan parte hartu ez duten eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak lehenetsunezkatzat jotzen dituen kasuei

ARRANDEGI, URDAITEGI, FRUTATEGI ETA HARATEGIKO SALTZAILEA ETA APAL-HORNITZAILEA

112 ordu: teoriko - praktiko



18 urtetik gorako pertsonentzat.

TEORIA: 28 ordu.
Datak: urriaren 13tik 21era, biak barne.

Ordutegia: 9:15etik 13:15era, astelehenetik ostiralera.

Lekua: Ibaialdeko lokalak, (Ibaialde pasealekua) Mutiloa.

PRAKTIKA: 84 ordu.
Datak: urriak 24tik azaroaren 9ra, biak barne.

Ordutegia: Birakaria. Goizez eta arratsaldez. 6 ordu egunean. Disponibilitatea behar da. Astelehenetik larunbatera.

Lekua: Eroskiko merkatalguneetan. Enpresak zehaztuko dituen joan-etorriak egin beharko dira.

Plazak: gehienez 12 pertsona.

IZEN EMATEAK: Irailak 27 eta 28.

Nola?: 948 012 012 telefonora deituz, 8:00etatik 18:00etara

Adineko pertsonak

ORDENAGAILUAREN ETA MUGIKORRAREN OINARRIZKO FUNTZIONAMENDUA 60 URTETIK GORAKO PERTSONENTZAKO (lehenetsunez)



Whatsappa, artxiboen erabilera (erantsi, deskargatu, gorde ...), posta elektronikoa, argazkiak telefonotik ordenagailura pasatzea, liburu elektronikoak ...".

Tailer honek behar diren baliabideak eskaintzen ditu pertsonak autonomoagoak izan daitezen gailu eta tresna teknologikoak erabiltzen, hala nola ordenagailua edo mugikorra.

Pertsona interesdun guztientzat da, beti ere ordenagailuaren eta mugikorraren oinarrizko erabilerari buruz ikasi eta zalantzak argitu nahi badituzte: posta elektronikoaren erabilera, artxiboak kudeatzea,

beste gailu batean argazkiak gordetzea, WhatsApp-en eta mugikorraren beste aplikazio batzuen erabilera, Internet bidezko erosketak, liburu elektronikoak... beste gai batzuen artean.

- ◆ Tailerra ikasleen ezagutza-beharretara eta erritmora egokituko da.
- ◆ Tailer hau 60 urtetik gorakoentzat da (ahal dela).
- ◆ Tailerra batez ere praktikoa izango da eta beharrezkoa izango da parte-hartzaileek erabili nahi duten gailua (mugikorra, tableta edo ordenagailua) ekartzea.



DATAK: AZAROAK 9, 16 ETA 23, ASTEAZKENAK.
ORDUTEGIA: 11:00ETATIK 13:00ETARA.
LEKUA: JUBILATUEN ELKARTEKO JARDUEREN GELA, MUTILOA PLAZAKO 5.EKO 1. SOLAIRUA.

EMAILEA: COCOKIDS.
IZEN EMATEA: URRIAREN 24 ETA AZAROAREN 4 BITARTEAN, 948 151 382
TELEFONORA DEITUZ EDO
rgarralda@aranguren.es E-POSTARA IDATZIZ.

MEDITAZIOAREN HASTAPENAK: BARNE ONGIZATERAKO ESTRATEGIAK

60 urtetik gorakoentzat da (nagusiki). Funtsean praktikoa izanen den tailer honetan, beste batzuen artean honako gaiak landuko dira:



- ▶ Gorputzaren lasaitasuna eragiteko estrategiak, Meditazioaren aurreko urrats gisa.
- ▶ Arnasketa-estrategiak pentsamenduen toxikotasuna murrizteko.
- ▶ Meditazioa I: gorputzaren lasaitasuna eta abandonu-sentsazioa.
- ▶ Meditazioa II: kontzentrazio mentala: estrategiak.
- ▶ Meditazioa III: bistaratzea, deskonexio mentala eta "isiluneak".



DATAK: ASTEAZKENAK, URRIAK 19 ETA 26, ASTEAZKENAK, ETA URRIAK 31, ASTELEHENA.
ORDUTEGIA: 11:00ETATIK 13:00ETARA
IZEN EMATEAK: URRIAREN 9RA ARTE, 948 151382 TELEFONOAN
EDO rgarralda@aranguren.es E-POSTAN.
LEKUA: SANTXIKI ZENTRO SOZIOKULTURALEKO JARDUEREN GELAN, MUTILOAKO SANTXIKI PASEALEKUKO 128.EAN.
EMAILEA: LOURDES DÍEZ, ONGIZATEAREN PSIKOTERAPEUTA.

ARANGUREN IBARREKO PODOLOGIA ZERBITZUA

Podologia Zerbitzuak oinen zaintza du helburu, beti ere sendaketa ez kirurgikoen bidez eta oinarrizko podologiako ebaketa eta zaintzak erabiliz. Zerbitzua martxan dago dagoeneko eta Aranguren Ibarrean erroldaturik dauden 60 urtetik gorako pertsonentzako da.

Etkez etxeko zerbitzua ere eskatu daiteke, beti ere interesa duen pertsonak mendekotasun gogorra, handia edota podologia zerbitzua dagoen gelara mugitzea eragozten dion ezgaitasuna aitortua duela egiaztatzen baldin badu.

Podologiako kontsultategia Erretiratuen San Pedro Elkarteko lehenengo solairuan dago (Mutiloa plaza z/g, Mutiloa). Zerbitzua, ostegunetan izanen da, 9:00etatik 14:00etara.

Zerbitzuaren prezioa 15 eurokoa da kontsultategian bertan eta 20 eurokoa etxean.



ARRETA AURREKO HITZORDU BIDEZKO DA. HITZORDUAK ARANGUREN IBARREKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUAN (MUTILOA PLAZA Z/G, 1. SOLAIRUA)
EMATEN DIRA AURREZ-AURRE ETA BAITA TELEFONO HONETAN ERE: 948 151 382

ARANGUREN IBARREKO JANTOKI OSASUNGARRIA



Jantoki osasungarria Aranguren Ibarreko Jubilotekarekin batera adinekoei laguntza integrala eman nahi dien baliabidea da.

Haren helburu nagusia da Aranguren Ibarreko adineko pertsonak modu osasuntsu eta orekatuan bazkaldu ahal izateko gunea sortzea eta, aldi berean, konpainian egiteko aukera izan dezatela.

NOLA FUNTZIONATZEN DU?

Aranguren Ibarreko 60 urtetik gorako pertsonak parte har dezakete, baldin eta beren kasa moldatzen badira.



ORDUTEGIA: ASTELEHENETIK OSTIRALERA, 13:30ETIK 15:00ETARA.
DENBORALDIA: URTE OSOAN ZEHAR.
LEKUA: MUTILOAKO OSASUN ETXEAREN AZPIALDEKO ZENTROAN.
****INFORMAZIO GEHIAGO: ARANGUREN IBARREKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUA. MUTILOA PLAZA Z/G. TELEFONOA: 948 151382**

HELDUENTZAKO OINARRIZKO FORMAKUNTZA



Irakurketa edota idazketa finkatu eta kalkulu matematikoko oinarrizko ezagutzak eskuratu behar dituzten pertsonentzat da, eta, oro har, oinarrizko ezagutza-maila lortu nahi duten pertsona heldu guztientzat, beren gizarte eta kultura-ingurunean parte hartu eta bizitzan zehar ikasten jarraitu ahal izateko.

Formakuntza "José M^a Iribarren" Helduen Oinarrizko Hezkuntzarako Ikastetxe Publikoko irakasleek emango dute.

Lekua: Mutiloako Jubilotekako lokaletan (Osasun Etxeko beheko aldean).
Ordutegia: astelehen eta asteazkenak, 15:30etik 17:30era.
Hasierako data: iraileko bigarren hamabostaldia.



INFORMAZIO GEHIAGORAKO:
ARANGUREN IBARREKO UDALEKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUA
(Mutiloa plaza z/g, Mutiloa, Telefonoa: 948 151 382)

ATZERRITARRENTZAKO GAZTELANIA



Iruñako "José M^a Iribarren" Helduen Oinarrizko Hezkuntzarako Ikastetxe Publikoak gaztelaniazko prestakuntzarako doako ikastaroak ematen ditu, ikasleei hizkuntza ulertzeko eta adierazteko baliabideak eskaintzeko.

- ▶ Ikastaroak lau hilabetekoak dira eta irailean hasten dira.
- ▶ Eskolak goizez, bazkalondoren eta arratsaldean ematen dira.
- ▶ Saioak ordu eta erdikoak edo bi ordukoak dira, astean hiru edo lau egunez.
- ▶ Ikasketa maila ezberdinak daude, alfabetizaziotik hasi eta goi mailara arte.



Irailaren 2tik aurrera on-line edo "Jose María Iribarren" Ikastetxe Publikora bertaratuz Bartolomé de Carranza k/ 5, Iruña. Telefonoa: 848 43 04 00.

Formazioa Mutiloan egiteko interesa baldin baduzu, jarri zaitez harremanetan Aranguren Ibarreko Gizarte Zerbitzuarekin 948 15 13 82 telefonoan, 9:00etatik 14:00etara, astelehenetik ostiralera.

DOAKO AHOLKULARITZA PSIKOLOGIKO ZERBITZUA



Irailaren 9an, ostiralean, Aranguren Ibarrean erroldatuta dauden 14 eta 35 urte bitarteko gazteei zuzendutako aholkularitza psikologiko zerbitzua berrabiaraziko dugu.

Zerbitzu honek familiako eta jendarteko harremanak hobetzen laguntzen du eta honako alderdi hauek jorratzeko aholkularitza ematen du: auto-estimua, gaitasun sozialak, estresa eta antsietatea, beldurrak, egoera depresiboak, aldaketei egokitzea, elikadurarekin lotutako nahasdurak, menpekotasunak...



ZERBITZUA ERABILTZEKO, ALDEZ AURRETIK HITZORDUA ESKATU BEHAR DA ARANETXEAN (ARANGUREN IBARREKO GAZTEDIAREN ETXEAN), KALE NAGUSIA 2, BIS.
TELEFONOA: 948 237 558. ZERBITZUA OSTIRALETAN ESKAINIKO DA, 17:00ETATIK 19:00ETARA.

ZERBITZU ETA BALIABIDE GIDA

KONTSUMOARI BURUZKO AHOLKULARITZA ZERBITZUA

Laguntza eta aholkularitza ondorengo eremuetan: kontsumoa, telekomunikazioak, hornidurak, erosketa bermeak, zerbitzu eta ondasun salerosketak, ibilgailu, konponketak, turismoa, alokairuak,...

AHOLKULARITZA PSIKOLOGIKO ZERBITZUA

Familiako eta jendarteko harremanak hobetzeko laguntza, auto-estimua, gaitasun sozialak, estresa eta antsietatea, beldurak, egoera depresiboak, aldaketei egokitzea, elikadurarekin lotutako nahasdurak, menpekotasunak... 14 eta 35 urte bitarteko gazteei zuzendua.

LUDOTXIKIA

0 eta 3 urte bitarteko haurrentzako jolasteko gunea. Beti haien erantzukizuna izango duen heldu batez lagunduta egon beharko dute.

TXALOPOTE LUDOTEKA

4 eta 12 urte bitarteko haurrentzako jolasteko gunea, formazioa duten hezitzaileek antolatutako jolas eta jardueren bidez beren aisialdia alaitu nahi badute.

MATERIAL ORTOPROTESIKOA MAILEGATZEKO ZERBITZUA

Denbora batez zenbait material mailegatzeko zerbitzua: aulki gurpildunak, dutxarako aulkiak, makuluak, bastoiak, etab.

LIBURUAK MAILEGUAN HARTZEKO GURASOENTZAKO ZERBITZUA

Seme-alaben eguneroko hezkuntza erraztu edo lagundu dezaketen argitalpenen mailegua.

JANTOKI OSASUNGARRIA

Autonomoak diren edo mendekotasun ertaina duten 60 urtetik gorako pertsonen , beren behar dietetikoen arabera, modu osasuntsu eta orekatuan jan ahal izateko zerbitzua, eta, aldi berean, konpainian egin dezaketela sustatzeko. Mugitzeko zailtasunak dituzten pertsonen menua etxean jasotzeko aukera dute.

JUBILOTEKA

Mendekotasunik ez duten edo mendekotasun ertaina duten 60 urtetik gorako pertsonentzako zerbitzua. Oroimen eta psikomotrizitate tailerrak eskaintzen ditu, nariadura fisiko eta psikikoari aurrea hartzeko.

PODOLOGIA ZERBITZUA

Podologia Zerbitzuak oinen zaintza du helburu, beti ere sendaketa ez kirurgikoen bidez eta oinarrizko podologiako ebaketa eta zaintzak erabiliz. Aranguren Ibarrean erroldaturik dauden 60 urtetik gorako pertsonentzako da. Salbuespeneko egoerentzako ere, etxeko zerbitzua eskaintzen da.

ELIKAGAIEN BANKUA

Egoera ekonomiko eta sozial kalteberan dauden familiei oinarrizko produktuak banatzeko. Baliabide hori garatzeko, ezinbestekoa da boluntarioen lana, beren denborarekin elikagaiak antolatu, bildu eta banatzen laguntzen baitute.

LAN POLTSA

Langabezian edo/eta lan hobekuntzan dauden erroldatuentzako zerbitzua. Bere eginkizunen artean daude curriculum biltzea eta, ondorioz, lan poltsaren datu-basean inskribatzea eta enpresek eta partikularrek egiten dituzten lan eskaintzak jasotzea.

ESKAERAREN ARABERAKO TAXIA

Garraio erregularrik ez duten Ibarreko udalerrietako bizilagunak Mutiloako zerbitzuetara eta hiri garraioko lineetara hurbiltzeko garraio zerbitzua.

FAMILIA ETA HAURTZAROA

- Tailer monografikoak, gurasoen topaleku gisa, seme-alabak hezteko lan garrantzitsuari modu sinpleagoan aurre egiteko gogoeta egin eta trebetasunak ikasi ahal izateko. Familiei laguntzeko, haurtzaindegi-zerbitzua dago.
- Haur eta nerabeentzako programak: ikastetxeekin lankidetzan, hainbat programa egiten dira, ohitura osasungarriak sustatzeko eta eskolako eta familiako bizikidetzak egokirako jarrerak sustatzeko.

KANPALDIAK ETA HIRI TAILERRAK

Aranguren Ibarreko gizon eta emakumeen familia, lana eta bizitza pertsonala bateragarri egiten laguntzeko eta 4 eta 12 urte bitarteko haurren aisialdirako baliabideak:

- Udako hiri-kanpaldia
- Gabonetako tailerra
- Inauterietako tailerra
- Aste Santuko tailerra

EMAKUME ETA FAMILIENTZAKO LAGUNTZA JURIDIKORAKO ZERBITZUA

Behar juridikoengatik eta bereizkeriagatik aholkua eta orientazioa eskatzen duten erroldatuei ematen zaien zerbitzua, bereziki, tratu txarrak edota sexu-erasoak gertatzen direnean.

IN.TE.RE.SA PLANA (ENPLEGU PLANA)

- Enplegua sustatzeko kontrataziorako diru-laguntzak
- Prestakuntza pertsonal, sozial eta laboralerako diru-laguntzak
- Auto-enplegua sustatzeko diru-laguntzak (2009/12/21eko 156. NAO)

HELDUENTZAKO OINARRIZKO FORMAZIOA

Irakurketa edota idazketa finkatu eta oinarrizko ezagutza-maila lortu behar duten pertsonentzako prestakuntza.